



Arartekoaren 2021R-1488-20 Ebazpena, 2021eko ekainaren 1ekoa. Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatu dio berrius dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa aitortzeko eskaera baten ukapena, horrek dakartzan ondorio ekonomikoekin.

Aurrekariak

1. Herritar batek erakunde honetan aurkeztutako kexa bat izapidetzeko onartu zen. Horren bidez, Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen Lanbidek ukatu egin ziolako diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa aitortzeko eskaera.

Kexaren sustatzailea bere ohiko bizilekuan, Bilboko (...) kalean kokaturikoan, bizi zen (eta bertan erroldaturik ageri zen etenik gabe) 1996. urteaz geroztik; hasiera batean bere amarekin -(...) andrearekin- batera, ama 2018ko abenduan hil zen arte.

Amak egiletsitako testamentu irekian, interesduna jaraunsle unibertsal izendatzen zen; eta jarauntsiko ondasuna osatzen dute lehendik biak bizi ziren etxebizitzak eta bi kontu korrontetan gordailututako diru-kopuru txiki batek.

Hildako amak, era berean, kexagilearen amonaren dohaintza huts eta sinplearen bidez jaso zuen higiezina; eta hura zen jabetza-erregistroan etxebizitzaren jabe gisa agertzen jarraitzen zuena.

2020ko martxoaren 3an, ama hil eta urtebete eta hiru hilabetera, diru-sarrerarik ez zuenez eta oinarritzko beharrei aurre egiteko zailtasun handiak zituen, interesdunak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa pertsona bakarreko bizikidetzaren unitate gisa aitortzeko eskaera egin zuen Lanbideko bere bulegoan.

Urte bereko ekainaren 24an, Lanbidek entzunaldi-izapide bat jakinarazi zion; eta, bertan, adierazi zuen honako betekizun edota betebeharrak ez zituela bete hauteman zela:

*“(...) *Deberá entregar testamento de P.G.L. y documento de Aceptación de la herencia.*

*“(...) *Deberá entregar, en todo caso, nota simple del registro de la propiedad.*

Uztailaren 7an, jakinarazitako entzunaldi-izapidea erabiliz, interesdunak honakoak aurkeztu zituen Lanbideko bere bulegoan: bere amak bere alde emandako testamentu irekiaren kopia bat; Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren likidazioari buruzko 650 erdua; erroldatze-ziurtagiri eguneratua; eta jabetza-erregistroaren ziurtagiri sinple bat (bertan, amaren aldeko amona agertzen zen oraindik higiezinaren titular gisa).

Era berean, erakunde horren aurrean alegatu zuen ez zegoela prest jarauntsitako higiezina jabetza-erregistroan bere izenean jartzearekin lotutako gastuari aurre egiteko. Izapide hori, bestalde, ez zuen beharrezkotzat jotzen,





oinordeko unibertsala eta jabe bakarra izanda, aurkeztutako agirietan egiaztatzen zuen bezala (agiri horietan oinordetza-traktua behar bezala egiaztatuta geratzen zen).

Uztailaren 15ean, Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea ukatu zitzaiola jakinarazi zitzaion, honako hauetan oinarrituta:

“18/2008 Legearen 16.a artikuluan ezarritako betekizunari lotutako Dekretuaren 5. artikulua ez betetzea: 147/2010 Dekretuan jasotako kasuetan aurreikusitako bizikidetz-unitate bat eratzea.

Bizikidetz-unitatea ez izatea, 147/2010 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera” (sic).

2. Arartekoak, 2020ko irailean, informazio-eskaera bat egin zion Lanbideri; eta, bertan, zenbait gogoeta egiten ziren (errepikakorrak ez izateko, Gomendio honen Gogoeten atalean ageri dira zehaztuta). Laburbilduz, honako hau adierazten zen: *“Erregistroan izena emanda egoteak interesdunari berme handiagoa ematen badio ere hirugarrenen aurrean, interesdunak aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuz, ez da zalantzarik sortzen kexaren sustatzailea jabe gisa bizi dela etxebizitzan”.*

Eskaera horri erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak txosten bat bidali zuen. Txosten horrek honako hau zioen:

“2020ko uztailaren 7an dokumentazioa aurkeztu zuen A.H.O.G jaunak, jakinarazitako Audientzia Tramiteari erantzuteko (...) dokumentazioa ez dator bat eskatu zenarekin.

(...) Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, ukatu egin behar da interesdunak aurkeztutako eskaria”.

Gogoetak

LEHENENGOA. Interesdunak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa aitortzeko egindako eskaera Lanbideko ukatu izanaren oinarria da ustez ez dela betetzen [Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen](#)¹, (aurrerantzean, abenduaren 23ko 18/2008 Legea) 16 a) artikuluan jasotako betekizuna; honi dagokionez: [Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren](#)² (aurrerantzean, maiatzaren 25eko

¹ **Euskadi.** Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea [linean]. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2008ko abenduaren 31koa, 250. zk. Hemen eskuragarri: https://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi_normativa/es_def/adjuntos/Ley_2018-2008.pdf

² **Euskadi.** Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua [linean]. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2010eko ekainaren 17koa, 114. zk. Hemen eskuragarri: https://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi_normativa/es_def/adjuntos/Decreto%20147-2010.pdf





147/2010 Dekretua) 5. art.: *“147/2010 Dekretuan jasotako kasuetan jasotako bizikidetza-unitatea eratzea”.*

Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen aipaturiko 16 a) artikulua honako hau ezartzen du:

“Eskubidearen titularrak

Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearen titular izan ahalko dira, lege honetan errentaren modalitateetako bakoitzerako aurreikusten diren baldintzetan, honako baldintza hauek biltzen dituztenak:

- *a) Bizikidetza-unitate bat osatzea. Erregelamendu bidez zehaztuko da unitateak zenbat denbora lehenagotik eratua behar duen eta zer salbuespen egon daitezkeen. (...).”*

Bestalde, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. artikulua, legea garatzeko, honako hau aurreikusten du:

“Bizikidetza-unitatea.

1. Dekretu honi dagokionez, honako pertsonak edo pertsona-taldeak hartuko dira bizikidetza unitatetzat:

a) Etxebizitza edo bizitoki batean bakarrik bizi diren pertsonak, (...).”

Bi agindu horiek irakurrita, ondorioztatzen da interesdunak, prestazioa aitortzeko eskaera egin zuenean, 2020ko martxoaren 3an, pertsona bakarreko bizikidetza-unitate bat eratzeko betekizuna betetzen zuela.

Azpimarratu behar da, gainera, Dekretu beraren 9. artikulua eskatzen duen aurrerapenarekin betetzen zuela hori. Artikulu horren arabera, eskubidearen titulartasuna eskuratu ahal izateko, pertsonak *bizikidetza-unitate bat eratzeko* betekizuna bete behar du *gutxienez eskaera aurkeztu baino urtebete lehenago*.

Interesduna amarekin bizi izan zen hura 2018ko abenduan hil zen arte; eta 2020ko martxoan egin zuen prestazioaren eskaera, hau da, hil zenetik urtebete eta hiru hilabete igaro ondoren. Beraz, ez dago zalantzarik une hartan pertsona bakarreko bizikidetza-unitatea zela.

Baina, nolahi ere, Dekretu beraren 9. artikulua berak, d) atalean, aurrerapenaren betekizun hori betetzetik salbuesten ditu *gurasoen, tutoreen edo legezko ordezkarien heriotzagatik edo horiek egoitza-zerbitzu sozial, sanitario edo sozio-sanitario batean edo espetxe batean behin betiko sartzeagatik bizikidetza-unitate berri bat eratzen dutenak*.

BIGARRENA. Lanbideren ebazpenak, kexaren sustatzaileak egindako eskaera ezesten zuenak, zehazki arrazoitzen zuen, bizikidetza-unitate bat eratzeko betekizuna ez betetzearen adierazpen gisa, interesdunak: *“No aclara el régimen de vivienda actual ni entrega la documentación que lo acredite (alquiler, cesión en uso...).”*





Adierazi bezala, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5. artikulua, Lanbidek eskaera ukatzeko oinarritzat hartzen duenak, bizikidetza-unitatearen izaera esleitzen die **“etxebizitza edo bizitoki batean bakarrik bizi diren pertsonei”**.

Bestalde, dekretuaren 6. artikulua horri dagokionez honakoa argitzen du: **“Etxebizitza edo bizitoki-modalitateen artean ondokoak hartzen dira:**

a) *Bizikidetza-unitate bakar batek okupatutako etxebizitza edo bizitoki partikularrak”*.

Ikuspegi horretatik, berriz ere esan behar da interesdunak bizikidetza-unitate bakar batek (berak eratutakoa) okupatutako etxebizitza batean bizitzeko betekizuna betetzen zuela.

HIRUGARRENA. Erakunde honen ustez, interesduna prestazioa aitortzeko eskaeran jasotzen den etxebizitzan bizitzeko araubidea egiaztatzeko eskakizunak ez du lotura zuzenik bizikidetza-unitate bat eratzeko betekizuna betetzearekin; eta arrazoi horretan oinarritzen da, ez da ahaztu behar, azken batean eskaera ukatzea.

Bai izapidetze-fasean, bai eskaera ukatzearen aurka jarritako berraztertze-errekurtsoan, interesdunak Lanbiden jasota utzi zuen hildakoaren jaraunsle unibertsala zela; eta haren seme bakarra izan zela, amak bere alde emandako testamentu irekia aurkeztu izanarekin eta aurkeztutako Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren likidazioarekin egiaztatu zuen bezala. Aldi berean, alegatu zuen ez zegoela prest jarauntsitako higiezin jabetza-erregistroan bere izenean jartzeari lotutako gastuari aurre egiteko; eta, izapide hori, bestalde, eta azaldutako arrazoiengatik, ez zuela beharrezkotzat jotzen.

Horri dagokionez, adierazi behar da jabetza-erregistroak segurtasun juridikoa ematen diela izena emandako eskubideei, trafiko juridikoaren segurtasuna eta arintasuna bultzatzen dituela eta transakzio-kostuak aurrezten dituela; baina erregistro horretan izena ematea ez dela funtsezkoa ondasun higiezin baten jabetza eskuratzeko.

[Kode Zibilak](#)³, 609. artikuluan, honako hau ezartzen du: **“Ondasunen gaineko jabetza eta beste eskubide erreal batzuk eskuratu eta eskualdatzen dira legearen bidez, dohaintzaren bidez, testamentuzko nahiz testamenturik gabeko oinordetzaren bidez, eta, zenbait kontraturen ondorioz, tradizio bidez”**.

Beste alde batetik, lege-testu bereko 661. artikuluan haxe ezarri da: **“Heriotzaren egitate hutsa dela bide, hildakoaren jaraunsleak haren eskubide eta betebeharren oinordeko bihurtzen dira”**.

Azkenik, KZaren 1068. artikulua honakoa ezartzen du: **“Legearen arabera egindako banaketak jaraunsle bakoitzari ematen dio berari adjudikaturiko ondasunen jabetza eksklusiboa”**.

³ **Espainia.** Errege Dekretua, 1889ko uztailaren 24koa, Kode Zibila argitaratzen duena [linean]. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 1889ko uztailaren 25ekoa, 206. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1889-4763>.



Laburbilduta, erakunde honen iritziz, eta higiezin bat erregistroan izena emanda egoteak titularrari hirugarrenen aurrean berme handiagoa ematen diola alde batera utzita, ez da jabetza eratzeko elementu bat; eta, kasu honetan, interesdunak Lanbideri bere eskaera izapidetzean aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuta, nahikoa egiaztatuta geratu zen jabe gisa bizi zen etxebizitza zuela.

Interesgarria da gehitzea, erakunde honek hala eskatuta, kexaren sustatzaileak prestazioa aitortzeko beste eskaera bat egin zuela 2020ko abenduan; eta eskaera 2021eko martxoan baietsi zela, eskaera egin zen egunera arteko atzeraeraginarekin, nahiz eta bizi den etxebizitzaren erregistro-egoera ez den aldatu.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11. b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau egin nahi diogu sail horri:

GOMENDIOA

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio, aurreko gogoetak kontuan hartuta, berrikus dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa aitortzeko kexaren sustatzaileak 2020ko martxoaren 3an egindako eskaera ukatzeari buruz emandako ebazpena, berrikuspen horren ondoriozko ondorio ekonomikoekin.

